



GOIMEN ELKARTEA

Olaeta auzoa, 6 ZALDIBIA

IFZ.: G-20198652

Kaixo adiskide:

Silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa zerbitzuaren datak jakinarazten dizkizuegu.

Bilketa **hilean behin egingo** da (hileko 3. asteartean) eta jadanik hilabete bakoitzeko egunak izendatuta daude:

2019 urtea

- Urtarrilak 15
- Otsailak 19
- Martxoak 20
- Apirilak 16
- Maiatzak 21
- Ekainak 18

Horretarako, Udalak, aurrez itxitura bat egingo du bilketa puntuetan eta plastikoa bezperan, astelehenean, atera beharko da.

OLABERRIAko herrian bilketa puntuak ondorengoak dira:

- ⇒ Iranzuagako bide gurutzea. OLABERRIA
- ⇒ Agerre baserriko bide gurutzea. OLABERRIA
- ⇒ Udal biltegi berria, Gainera auzoa. OLABERRIA
- ⇒ Errekalde auzoan, Aldabiako iturri ondoan. OLABERRIA

Oharrak:

- Birziklatzeko arazoak ematen dituztenez, plastikozkoak ez diren sokak ez ateratzea eskatzen da; plastikozko bidoirik ere ez.
- Plastikozko sokak, beste plastikoetatik berezituz, aparte atera behar dira, BI MULTZO EGINEZ, BATEAN PLASTIKOA, BESTEAK SOKAK.
- Mineralen zakuak atera ahalko dira, denak zaku batean sartu eta muturra sokatxo batez itxita.
- Mesedez plastikoak bezperatik atera (astelehenean) eta ez beste edozein egunetan.

Argitasun gehiago nahi izanez gero, deitu GOIMENeko 943 16 12 44 telefonora edo Udaletxera bertara.

Guztion partaidetza aurrez eskertuz agurtzen gara.

Zaldibian, 2019ko otsailaren 19an